

3/20

irizpena

Klima-aldaketaren Euskal
Lege-aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2020ko otsailaren 12an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

I.- AURREKARIAK

2019ko abenduaren 20an, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren idazkia jaso zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, Klima-aldaketaren Euskal Legearen aurreproiektuari buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eginiko Legearen aurreproiektua da, eta oinarrizko legeria garatzeko eta ingurumenaren eta ekologiaren arloko legeak betearazteko Gernikako Estatutuko 11. artikuluan xedaturiko eskumenak baliatuz, Klima-aldaketari aurre egiteko eta egokitzeko neurriak hartzeko arau-esparrua ezartzea du xede, betiere gehienez 2050. urterako ekonomia erresilientea eta karbonorik gabekoa lortzeko bidean aurrera eginez, garapen iraunkorraren bidez.

2019ko abenduaren 20an, Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei helarazi zitzairen Legearen aurreproiektua, proposamenak eta iritziak eman zitzaizten, eta horiek guztiak Lan Batzorde iraunkorrari jakinarazi zitzaizkion, Gizarte Garapeneko Batzordeari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorritz. Gizarte Garapeneko Batzordea 2020ko urtarrilaren 29an bildu zen lan-saioan irizpen aurreproiekturako proposamena eztabaidatzeko, eta irizpen proiektua ematea erabaki zuen, ondoren Euskadiko EGABren Osoko Bilkurari 2020ko otsailaren 12an helarazi zitzaiona; aho batez onetsi zen.

II.- EDUKIA

Euskadiko Ingurumen-administrazioaren Legearen aurreproiektuaren testuak honako hauek ditu: Zioen Azalpena, sei kapitulutan banaturiko 52 artikulua, hamar xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, azken xedapenetatik bi xedapen eta eranskin bat.

Zioen Azalpenean, lehenik eta behin Klima-aldaketaren arazoa aztertzen da: gizateriak XXI. mendean aurre egin beharreko erronka global handienetako bat da. Izan ere, oso premiazko erronka da, egungo ekonomia eta gizarte eredia sakon eraldatzea eskatzen duena, baita dagoeneko antzematen diren aldaketez jabetu eta horietara egokitzea ere. Nabarmentzen denez, Klima-aldaketaren kontrako politika, ezinbestean, integrala eta zeharkakoa da.

Ondoren, Klima-aldaketaren kontrako borrokan izandako nazioarteko ekimenak aipatzen dira: NBEko Klima-aldaketari buruzko Adituen Gobernuarteko Taldea eta giza jarduerak lurraren berotzean duen jatorriari buruz hark ateratako ondorioak, Klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru-konbentzioa eta 1997an sinaturiko Kyotoko Protokoloa, Aldeen Konferentzia eta Parisko 2015eko Akordioa; hartara, loteslea da akordioa sinatzen dutenentzat tenperatura globala industriaurreko mailekiko 2°C-tik behera mantentzeko helburua, eta Nazio Batuen 2030 Agenda, garapen jasangarriko 17 helburuekin.

Jarraian, Europar Batasunak arlo horretan gauzaturiko ekintzak ditu ardatz Zioen Azalpenak. Europar Batasunak lidergo berezia izan du mundu mailan neurri eta helburu zehatzak hartuta, berotegi efektuko gas isuriak 2050erako pixkanaka murrizteari begira. Azkenik, Euskadiren jardunean jartzen du arreta nagusia. Klima-aldaketa Garapen Iraunkorrerako 2002-2020 Ingurumen Estrategian txertatu eta ondoren Klima-aldaketaren Kontrako Borrokarako Euskal Plana egin zen 2008an, baita 2015ean egindako Klima-aldaketaren 2050eko Estrategia ere, programako beste gertaera garrantzitsuen artean.

Euskadiko Klima-aldaketaren eremuan liderra izateko bokazioa adierazita, gure lege berria bera aztertzeari ekiten dio.

Xedapenen atala

Legearen aurreproiektuaren xedapenen atalak honako xedapen hauek biltzen ditu:

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea
2. artikulua.- Aplikazio-eremua
3. artikulua.- Printzipioak
4. artikulua.- Definizioak

II. KAPITULUA: KLIMA GOBERNANTZA

5. artikulua.- Eskumenak eta funtzioak erabiltzea
6. artikulua.- Klima-aldaketarako Sailarteko Batzordea
7. artikulua.- Klima-aldaketaren Arloko Erakundearteko Koordinazioa
8. artikulua.- Ingurumeneko Kontseilu Aholku-emailea
9. artikulua.- Ingurumen eta Klima-aldaketaren arloko eskumena duen sailaren eginkizunak
10. artikulua.- Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa
11. artikulua.- Sentsibilizazioa, Informazioa eta Partaidetza Publikoa
12. artikulua.- Klima-aldaketaren Arloko Lankidetzarako Mekanismoak.
13. artikulua.- Klima-aldaketa Behatzeko Euskal Sistema
14. artikulua.- Klima-aldaketaren Ekimenerako Euskal Erregistroa

III. KAPITULUA KLIMA-ALDAKETAREN PLANGINTZA

15. artikulua.- Klima-aldaketarako Euskal Estrategia
16. artikulua.- Klima-aldaketaren Ekintzarako Euskal Planak
17. artikulua.- Klima-aldaketaren Ekintzarako Euskal Planen Helburuak
18. artikulua.- Isuriak murrizteko eta energia berriztagarrietarako eta energia-eraginkortasunerako helburuak euskal ekonomian
19. artikulua.- Ekintzarako estrategiak eta euskal planak izapidetzea eta onestea eta horren jarraipena egitea
20. artikulua.- Lurralde Historikoetako eta Tokiko Erakundeetako Administrazioen Klima-aldaketarako Planak
21. artikulua.- Klimaren gaineko ikuspegia

IV. KAPITULUA KLIMA-ALDAKETA ARLOKO POLITIKETAN TXERTATZEA

- 22.- artikulua.- EAEko herri administrazioen betebeharrak eta baliabideak mugiaraztea
23. artikulua.- EAEko herri administrazioak eredugarri jokatzea
24. artikulua.- Planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa
25. artikulua.- Industria-jarduerak, merkataritza eta zerbitzuak
26. artikulua.- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza
27. artikulua.- Aurrezpena, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarria
28. artikulua.- Larrialdietako laguntza eta babes zibila
29. artikulua.- Garapenerako lankidetzak
30. artikulua.- Hiria eraikitzea, birgaitzea eta berroneratzea
31. artikulua.- Azpiegitura kritikoak
32. artikulua.- Itsasbazterra
33. artikulua.- Lurraldearen antolamendua eta hirigintza
34. artikulua.- Natura ondarea eta ekosistemen zerbitzuak
35. artikulua.- Ur-baliabideak eta lehorteen eta uholdeen kudeaketa
36. artikulua.- Hondakinak
37. artikulua.- Osasuna
38. artikulua.- Segurtasuna
39. artikulua.- Garraioa eta mugikortasuna

V. KAPITULUA BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ISURIAK MURRIZTEKO ETA KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEKO TRESNAK

40. artikulua.- Turismoa

41. artikulua.- Pizgarri publikoak

42. artikulua.- Klima-aldaketarako Ekimenen Euskal Erregistroaren pizgarriak

43. artikulua.- Isuriak gutxitzeko tekniken eta teknologien sustapena

44. artikulua.- Jakintzaren, hezkuntzaren, ikerkuntzaren, garapenaren eta berrikuntzaren sustapena

45. artikulua.- Karbono isuri txikiko udalerrri erresilienteak

46. artikulua.- Ekonomia zirkularra

VI. KAPITULUA KLIMA-ALDAKETAREN ARLOKO DIZIPLINA

47. artikulua.- Arau-haustek eta zehapenak

48. artikulua.- Arau-hausteen tipifikazioa

49. artikulua.- Arau-hausteen preskribatzea

50. artikulua.- Zehapenak

51. artikulua.- Ingurumeneko diziplina araubidearen ordezkoko aplikazioa

52. artikulua.- Zehapenen publizitatea

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen Xedapen Gehigarria. Baliabideak jartzea

Bigarren Xedapen Gehigarria. Klima-aldaketarako Sailarteko Batzordea

Hirugarren Xedapen Gehigarria. Gastuak egozteko metodologia

Laugarren Xedapen Gehigarria. Ingurumen-ebaluazioa.

Bosgarren Xedapen Gehigarria. Klimaren ikuspegia txertatzeko jarraibideak

Seigarren Xedapen Gehigarria. Klima-aldaketarako Estrategia aldatzea

Zazpigarren Xedapen Gehigarria. Eraikinen Iraunkortasuna Egiaztatzeko Sistemaren arauko garapenerako epea

Zortzigarren Xedapen Gehigarria. Lurralde eta Hiri Plangintza

Bederatzigarren Xedapen Gehigarria. Klima-aldaketarako Ekimenen Euskal Erregistroaren erregulazioa

Hamargarren Xedapen Gehigarria. Karbono isuri txikiko udalerrri erresilientea izendatzeko erregulazio plana

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Xedapen Iragankor Bakarra

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetatik Lehena. Arauak garatzeko gaikuntza

Azken Xedapenetatik Bigarrena. Indarrean sartzea

ERANSKINAK

Eranskina. Definizioak

III.- GOGOETA OROKORRAK

Klima-aldaketa arrisku handia da Lurrarentzat eta gizakiontzat, eta dagoeneko lehen ondorioak jasaten ari gara, besteak beste, eguratsaren berotzea, hondamendi meteorologikoak edo itxasoen mailaren berotzea eta igoera.

Arazoa nolakoa den ikusita, funtsezkoa da taldeko ekintza, gero eta premiazkoagoa eta irmoagoa, hondamendira garamatzen berotegi efektuko gasen isuriak gutxitzeko eta beharrezko arintze- eta egokitze-neurriak hartzeko.

Hainbat hamarkadatan berotzeari buruzko emaitza diskretuak eman ondoren, gero eta gehiago dira, besteak beste, klima-larrialdia deklaratu duten hiriak, eskualdeak eta estatuak, klima aldatzen ari delako ebidentzia zientifikoaz jabetuta eta isurpenak murrizteko politika eraginkorrak abian jartzeko beharraz jabetuta, karbonozko ekonomia eta gizarte neutroa lortzeko bidean. Europako Parlamentuak berriki egin du adierazpena, 2019ko azaroan hain zuzen, premiazko neurriak eskatuta: “beranduegi izan baino lehenago”, eta Europako Batzordeak “Europako Itun Berdea” abiarazi du, EB ekonomia lehiakor eta eraginkorra baliabideetan izango duen gizarte iraunkor eta justu bihurtzeko hazkunde-estrategia, 2050erako berotegi-efektuko gasen emisioetan neutroa izango dena, Europar Batasunaren hurrengo urteetako ekintza politikoaren ardatz nagusia izango dena.

Kontsulta egin deneko arauaren xedea da Klima-aldaketaren eraginak gutxitzeko eta horretara egokitzeko neurriak hartzeko arau-esparrua ezartzea, klimaren aldetik erresilientea eta karbonorik gabekoa den ekonomian aurrera eginez 2050. urterako. Klima-aldaketaren kontrako borroka talde-erantzukizun partekatua da, non erakunde maila guztiek parte hartu behar duten euren ahalmenen eremuan, eta haren arau-esparru espezifikoari esker, egoera hobean ekin ahal izango die Euskadik arlo horretan dituen asmoei, baita Euskadirentzako eta gizartearentzako ekarpena hobea ere. Halaber, “Europako Itun Berdea” garatzeak Estatuarentzat eta Euskadirentzat ekarriko dituen betebeharrak betetzeko, tresna juridiko egokiak beharko dira.

Horregatik guztiagatik, oso balorazio positiboa egiten du Batzorde honek Klima-aldaketari buruzko euskal legea egiteko ekimenaren inguruan. Oro har, bat dator ekimenaren ikuspegiarekin eta egiturarekin, betiere ondoren emango ditugun gogoeta orokor eta espezifikoari kalterik egin gabe.

Trantsizio ordenatua eta bidezkoa arlo kaltetuenentzat

Legearen aurreproiektuko Zioen Azalpenak dakarrenez, Euskadik **ekonomia oparoaren, modernoaren, lehiakorraren eta karbonorik gabeko ekonomiaren eta garapen iraunkorra lortzearen** aldeko apustua egin behar du, betiere Klima-aldaketari aurre egiteko ekintza politika oinarri hartuta, jakintzaren ondoriozkoa eta berrikuntzak eta garapen

teknologikoak ematen dituzten aukerak baliatzea ahalbidetuko duena. Bat gatoz ideia horrekin eta, gainera, uste dugu lege hori lagungarria izango dela Euskadik epe luzera emaitza ekonomiko onak izan ditzan. Hala ere, beste hau ere nabarmendu nahi dugu: Euskadiko eredu ekonomikoaren eraldaketak ez dituela izango eragin berdinak epe laburrera/ertainera jarduera eta sektore ekonomiko guztietan. **Eraldaketa horrek bereziki eragingo die zenbait sektoreri eta jarduerari, eta haien negozio- eta enpresa-eredua** (EBk ezarritako helburuak eta epeak kontuan izanik) **benetan eta denbora laburrean birplanteatu behar izango du nahitaez** (adibidez, garraio jarduera eta mugikortasuna, ibilgailu eta enpresa osagarrien fabrikazioa, eraikuntza). Klima-aldaketarako politiketara egokitzeko eraldaketa handiagoa behar duten sektore eta jarduera ekonomikoetako enpresa gehienek, ezinbestean, **beren barne antolaketako aldaketei eta aldaketa estrategiko sakonei egin beharko diete aurre. Horrek guztiak ondorioak izango ditu enpleguan eta enpresa-ereduan.** Ildo horretan, positibotzat jotzen dugu 41. artikuluan berariaz aipatzea “trantsizio ekologikoko sektore kalteberei” lagundu behar zaiela, ekoizpen-agertoki berrirako aldaketa bidezkoa eta gizartearen aldetik onuragarria izan dadin gizarte osoarentzat.

Alabaina, Batzorde honen ustez ikaragarri mugatua da Bidezko Trantsizioaren printzipioari buruzko aipamena; izan ere, Zioen Azalpenean ez da aipatu ere egiten. Toki garrantzitsuagoa izan beharko luke legean, eta Zioen Azalpenean nahiz artikulatuan erreferentzia inplizitua eta esplizitua egin beharko litzateke.

Abagunea baliatu nahi dugu berriz azpimarratzeko legearen arau-garapenean, Eusko Jaurlaritzaren estrategia eta plangintza garapenak iraun bitartean, laguntzarako programa handizalea aurreikusi edo ezarri beharra dagoela eraldaketarik handiena egin behar duten sektore edo jarduera kalteberetan. Hartara, adibidez, meatzaritzaren sektorerako “Bidezko Trantsizioa”ri buruz estatu mailan dagoeneko dauden etsenpluak jarraituz eta Europako Batasunetik etorkizuneko *Bidezko Trantsiziorako Mekanismoaren* testuinguruan zehazten hasi diren laguntza-eskemak ahalik eta gehien profitatuz. Eraldatze-prozesuaren iraunkortasunak berak eskatzen du sektore kalteberen trantsizioa modu ordenatuan, ez traumatikoan, kohesionatua, eta koordinatuan egitea, beharrezko laguntza izanik. Soilik horrela modernizatu ahal izango dira sektore/jarduera horiek eta egokitu ahal izango dira “Klima-aldaketari aurre egiteko Europako eta EAEko estrategia 2050”en manatuetara galera sozialik eta ekonomikorik eragin gabe.

Klima Ekintzaren Aldeko Gizarte edo Herrialde Ituna

Lege aurreproiektuko Zioen Azalpenean ezarri denez, aurre egin beharreko premiazko erronka da Klima-aldaketa, eta **eredu ekonomikoa eta soziala sakon eraldatzea** eskatzen du -hots, energia, ekoizpen eta kontsumo eredu-, baita prebentzioa eta gaur egun dagoeneko antzematen ari diren eraldaketetarako egokitzapena ere. Gure aldetik, honako hau ere gehitu dezakegu: **ezinbesteko erronka global horrek gure herrialdearen kultura soziala eta politika eraldatzea eskatzen duela. Horrez gain, Klima-aldaketa ez da soilik ingurumenaren gaineko erronka ere, ezta soilik gizartearen zenbait eragileri agindutako erronka ere,** enpresei edo administrazioari esate baterako, baizik eta guztiok hartu behar dugu parte, gizarte osoak. Klima-aldaketari aurre egiteko ekintza zeharkako politika eta unibertsala da. Hain da horrelakoa, non **administrazio guztien, gizarte eta ekonomia eragileen eta herritarren ekintza hitzartua eskatzen baitu, maila guztietatik:** tokikoa, eskualdekoa eta mundukoa. Ildo horretan, aipaturiko legean **Klima-aldaketarako Gizarte Ituna bultzatzeko** aukera kontuan hartzea proposatzen dugu, **“Klima-aldaketarekiko erresilientea den karbonorik gabeko lurralderako trantsizioan”**, non talde konpromisoa islatuko baita, elkarlanean eskuz esku. **Herrialde mailako konpromiso hori, gainera, bat**

etorriko litzateke Nazio Batuen 2030eko Agendako Garapen Iraunkorreko Helburuekin. Horien artean, hain zuzen ere gobernuen, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko itunak eraikitzea dago, zenbait balio eta ikuspegi partekatutan oinarrituriko baterako jarduketak garatzeko. Klima-aldaketarako politikek baterako ikuspegi partekatu horren beharra dute, gizarte modu koherentean eta eraginkorrean abiarazi ahal izateko.

Eusko Legebiltzarrak aurten bertan eskatu dio Eusko Jaurlaritzari Energiaren Euskal Ituna lortzeko lanak bultzatzea; gure ustez, beharrezkoa da **Klima-aldaketarako Gizarte Ituna lortzea, eta eredu- eta kohesio-esparrua izango litzateke datozen urteetan ezar litezkeen eta sektorialagoak/tematikoagoak diren beste itun batzuetarako (energia edo mugikortasuna, esaterako).** Arloetako itun horiek garatuko dira Klima-aldaketaren kontra borrokatzeko eta karbonorik gabeko ekonomia neutroa eraikitzeko jarduketak gauzatzeko. Horregatik, Klimarako Ituna esparru-ituna eta jarraibidea izateko sortu beharko litzateke gainerako jarduketa sektorialetan/tematikoetan. Halaber, eta aurreko puntuarekin lotuta, **laguntza plan handizalearen garapena bideratu lezake, sektore/jarduera ekonomikorik kalteberetako sektore ekonomikoei laguntzeko, eraldaketa ordenatua eta bidezkoa izateari begira, ondorio ekonomiko eta sozial larririk gabe, aurreko gogoetan defendatu izan dugun bezalaxe.**

Itunak, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana eta entitate-sareak bultzatzea

Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanari esker, ezarpen era arrakastatsua garatu ahal izan da ingurumenerako politikaren azken 30 urtean Euskadin. Aurreproiektuko Zioen Azalpenean, ingurumenaren arloan luzaroan eginiko ahalegina islatu da; izan ere, horri esker, **ekonomiaren hazkundera eta ingurumen-adierazle nagusiak bereizteko** modua izan da. Orain dela gutxira arte, ezinezkoa zirudien bereizketa hori lortu da aplikaturiko politiken eraginkortasunagatik eta **arlo publikoaren eta pribatuaren artean lorturiko konpromisoagatik.**

Legearen aurreproiektu berri honetan, euskal ekonomia, horren ekoizpen-sistemak eta negozio-ereduak sakon eraldatzeko erronka berriaren jarraibideak ezarri dira, **karbonorik gabeko ekonomia zirkularra** lortu nahi baitu. Erronka hori lortzeko, EAEko enpresa-sareko jarduera eta sektore guztiek parte hartu behar dute. Ildo horretan, **orain, inoiz baino gehiago, azpimarratu behar dugu zein garrantzitsua izango den aldaketa horretarako arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana eta konpromisoa.** Legearen aurreproiektuan, elkarlan publiko-pribatua bideratzeko ideia bildu da, baina indartu beharko litzatekeela deritzogu. Horretarako, honako proposamen hauek sartzea planteatzen dugu, hots:

Alde batetik, Zioen Azalpenean, honako hau ageriago balioestea proposatzen dugu: **Eusko Jaurlaritzak eginkizunaren ingurumenerako politikak ezartzean euskal enpresek, langileek eta sektoreko profesionalek azken 30 urtean eginiko ahalegina eta ekarpena.** Izan ere, ahalegin hori lagungarria izan da, hain zuzen ere, hazkunde ekonomikoa eta **ingurumen-adierazleak** bereizteko Euskadin. **Era berean, enpresek, langileek eta ekonomia eta gizarte eragileek ekonomiaren eta gizartearen eraldaketa berri honetan betetzen jarraituko duten eginkizuna ere sartu beharko litzateke.** Zioen Azalpenean, eragile horiek izango duten eginkizunaren garrantzia aipatzen dela ikusten dugu, eskualdeena edo udalerriena adibidez. Hala ere, enpresek egin beharreko ahalegin handia eta langileen eginkizuna berriaz ez aipatzearen falta sumatzen dugu, baita ekonomia eta gizarte eragileena ere.

Bestalde, enpresek nahitaez garatu behar dituzte lege honetan eta azken hori garatuko duten legeetan (esaterako, mugikortasun iraunkorraren legea edo energia iraunkortasunaren legea) ezarriko diren lege betebeharrak eta konpromisoak bete ahal izateko jarduketak, eta hori kontuan hartuta, **entitate-sareak garatzeko ekimen pilotuak bultzatzeko aukera biltzea** proposatzen dugu, beste arlo batzuetan egiten ari denaren ildotik, adibidez, *Bai Sarea* Berdintasunean edo *Kontzilia* Baterako erantzukizuna-Familia Kontziliazioan, non enpresek, besteak beste, esperientziak, jakintza, praktikak, ikaskuntza, ideiak edo metodologiak partekatu ahal izango dituzten. Halaber, gune horretan, elkarlanean aritzeko moduak izango dira neurriak garatzean, **Klima-aldaketari** aurre egiteko eta horretara egokitzeko partekaturiko ekimenak eta baliabideak sortzea (hala nola mugikortasuna, energia-eraginkortasuna, Klima-aldaketako ekimena duen enpresa-estrategia ezartzea, etab.) eta **ekonomia zirkularrean** (berrikuntza, ekodiseinua, sareak enpresa osagarrietan sustatzea).

Helburu errealistak eta progresiboak finkatzea

Bat gatoz legeak Euskadiren lidertza indartzeko asmoa duela esatearekin. Izan ere, **klimaren gobernurako eta jarduketarako esparrua** ezarri behar da epe luzera, karbonorik gabeko lurralderako eta Klima-aldaketarako lurralde erresilienterako trantsizioa errazteko. Hala ere, **Euskadi Klima-aldaketan liderra izateko, premisa bat bete beharra dago: euskal enpresen lehiakortasunaren, Euskadiko garapen ekonomikoaren, kalitatezko enpleguaren eta planetaren zaintzaren arteko harmonia**; Euskadin orain artean ingurumenaren arloan egin izan den bezala, azken 30 urtean emaitza onak izanik. Ildo horretan, **egiazko lidergoa** sustatzearen alde gaude, baina akats hau egin gabe: ekimenak burutu nahi izatea aitzindariak izateko asmo hutsagatik. Eusko Jaurlaritzarekin batera apustu egin nahi dugu Klima-aldaketaren arloan liderra den Euskadi batean, betiere **lidergo klimatikoa enpresa hobek eta lehiakorragoak, gizarte garatuagoa eta planeta osasuntsuagoa sortzearen sinonimo bada**.

Testuinguru horretan, iradokitzen dugu erregelamendu-garapenean eta Klima 2050 Estrategia eguneratzean ezartzen diren **isuriak murrizteko helburuek** EBk ezarritako gidalerroei jarraitzea eta helburu errealistak izatea, euskal enpresa-sarearen errealitatearekin, jarduera ekonomikoen ezaugarri eta dinamika espezifikoekin, egin beharreko aldaketen bideragarritasun ekonomikoarekin eta gauzatzearekin eta dagoen ezagutza eta garapen teknologikoarekin bat etorritik. Era berean, iradokitzen dugu helburu horiek **pixkanaka eta arian-arian** aplikatzea, EBk ezarritako epeak erreferentziatzat hartuta (2030. eta 2050. urteak); une oro, enpresak eta langileak prestatzea eta laguntzea, datozen 10/30 urteetan mailaz maila egokitu daitezen, eta, horrela, ahal den neurrian, kolapso-egoerak saihestea, denbora faltagatik edo gehiegizko bizkortasunagatik. Helburu handiegiak errealitatean.

Legeen arteko koordinazioa

Urte honetan, legeak onartu eta izapidetu dira, hala nola, EAEko Iraunkortasun Energetikoaren Legea (2019ko otsailean onartua) eta EAEko Mugikortasun Iraunkorraren Legea (2019ko abenduan onartua), edo, are gehiago, Landa Garapeneko Legearen aurreproiektua, gure ustez egin beharko liratekeenak, behin Klima-aldaketari buruzko Legearen aurreproiektu hau onartuta, uste baitugu azken hori **“Esparru-lege”** bat dela. Zeharkakoak dira, eta arlo eta esparru sektorialetarako gidalerroak finkatzen dituzte (energia, garraioa, hezkuntza eta abar). Bereziki, mugikortasun jasangarriari eta jasangarritasun energetikoari buruzko legeek Klima-aldaketari buruzko Legearen aurreproiektu honetan sartzen diren gaiak garatu baino ez dute egiten. Nolanahi ere, hiru lege horiek izapidetzeko sekuentzia egokiena izan ez dela uste dugun arren, **Klima-aldaketari buruzko Legearen aurreproiektu hau, nolanahi ere,**

lehen aipatutako gainerako legeetarako erreferentziako araua eta haien artean egon daitezkeen desadostasunak behar bezala argitzen eta koordinatzen dituen arau gidaria izan dadila eskatzen dugu. Ildo horretan ikusten dugunez, aurreko bertsioen aurrean, Legearen aurreproiektu honetan hain zuzen ere koordinazioa bere artikuluetan sartzeko ahalegina egiten da.

Tresna pizgarriak, fiskalitate berdea

Berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko eta Klima-aldaketara egokitzeko tresnei buruzko Legearen aurreproiektuaren V. kapituluan, 41. artikuluan (pizgarri publikoak) eta 43. artikuluan (isuriak murrizteko teknikak eta teknologiak sustatzeari buruzkoa), **emisioak murriztea, Klima-aldaketara egokitzea eta isuriak murrizteko teknikak eta teknologiak aplikatzea sustatzera** bideratutako balizko neurri eta onura fiskalak aztertzei aukera jasotzen da. Ildo horretan, azpimarratu nahi dugu **“fiskalitate berde” harmonizatu bat ezartzeak eta garatzeak une honetan Euskadirentzat duen komenigarritasuna eta garrantzia, ibilbide luzeko eta egonkorreko enpresa-lehiakortasunera bideratua, euskal enpresak deskarbonizazioaren arloko Europako legedi berrira seriotasunez eta errealismoz egokitzeko aukera emango duena.**

Era berean, agerian utzi nahi dugu garrantzitsua dela V. kapitulua, tresna sustatzaileei buruzkoa, ondo eta eraginkortasunez garatu ahal izatea; izan ere, funtsezkoa izango da enpresei modu ordenatuan eta epe luzeko inbertsioekin beren ekoizpen- eta negozio-sistemak eralda ditzaten laguntzeko prozesuan. Horregatik, uste dugu gai hau, euskal administrazioen adostasuna behar duena, arestian aipatu dugun **Herrialde Itun horren esparruan** garatu ahal izango litzatekeela. Era berean, komenigarria litzateke arlo hori sektore sozioekonomikoarekin eta gizarte zibilarekin ere **tratatu edo kontrastatu ahal izatea, tresnak hartzaileentzat ahalik eta erabilgarrienak eta eraginkorrenak izan daitezen.**

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publikorako Programa

Legearen aurreproiektuak, 23. artikuluan bidez, ezartzen du Kontratazio Publikoaren Programak lehentasuna emango diela Klima-aldaketaren arloko kontratazio mota garrantzitsuenei, eta egokiak diren tresnak proposatuko dituela lizitazioetan irizpideak txertatzen direla ziurtatzeko, bai eta neurtzeko metodologiak ere, 2025ean zer eragin izango duten jakiteko.

Pozik ikusten dugu Legearen aurreproiektu honetan idazketa bat datorrela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ikuspegiarekin eta ikuspegiarekin, bai esleipen-irizpideei dagokienez (Betearazteko baldintzetan bezala (145s art.) (202).

Positiboki baloratzen dugu aurreproiektuari emandako idazketak aukera ematen diela esleipen-organoei Klima-aldaketari buruzko klausula sozialak, hala badagokio, **modu arrazionalizatuan eta haren xedea indargabetu gabe ezarri ahal izateko tresnak izateko.**

Erregistroak sinplifikatzea eta arrazionalizatzea

14. artikuluan Klima-aldaketarako Ekimenen Euskal Erregistroa sortzen da. Erregistro horrek, beste jarduera batzuen artean, zenbait kasutan sartuta dauden erakundeei eskatzen die urteko karbono-aztarna nahitaez inskribatzeko eta berotegi efektuko gasen isuriak murrizketari buruzko informazioa emateko. Testuinguru horretan, gogorarazi nahi dugu Europar Batasunak asko arautzen dituela enpresa-kolektibo batzuk, hala nola berotegi efektuko gasak isurtzeko

eskubideei buruzko Europako Merkataritzaren araudiaren eraginpean dauden enpresetakoak edo IPPC enpresetakoak, eta dagoeneko Administrazioari ingurumen-arloko informazio ugari aurkezten diotela. Ildo horretan, eta kudeaketa ona eta administrazio-simplifikazioa lortze aldera, **proposatzen dugu Klima-aldaketaren arloan sortzen den erregistro berria elikatzea eta euskal administrazioak dagoeneko badituen beste iturri eta erregistro batzuetatik informazioa jasotzea, ingurumen-informazio ugari aurkezten ari diren enpresa-kolektibo horiek gehiegi kargatzea saihestuz.** Hortaz, **erregistroak arrazionalizatzea proposatzen dugu, euskal administrazioak ingurumenaren arloan dituen informazio-sistemen elkarreragingarritasunaren bidez, eta erregistro berri honetan beste iturri batzuekin bat datozen adierazleak eta dokumentazioa aurkeztu behar izatea saihestea,** batez ere eremu horretan oso araututa dauden enpresentzat.

Organo aniztasuna

Aurreproiektuak, Klima gobernantzari buruzko kapituluan, organo batzuk jasotzen ditu, batzuk lehendik daudenak, beste batzuk sortu berriak: Klima-aldaketaren Sailarteko Batzordea, Klima-aldaketaren Euskal Bulegoa, Ingurumenaren Aholku Batzordea, Klima-aldaketa Behatzeko Euskal Sistema. Horiei txostenak egiteko, planen jarraipena egiteko eta koordinaziorako funtzioak esleitzen zaizkie, eta kasu batzuetan gainjarri ere egin daitezke.

Organo ugartasun horrek nahasmena sor lezake, eta zailagoa izan daiteke politika argi eta uniformeak koordinatzea eta ezartzea eta haren jarraipena egitea. Horregatik, egokia iruditzen zaigu gogoeta bat planteatzea aurreikusitako organo berri guztiak sortzeko benetako beharrari buruz eta organo horien funtzioei buruz.

Aurreikusitako epeei buruzko gogoeta

Aurreproiektuak ezartzen du Klima-aldaketaren Euskal Estrategia gutxienez hamar urtean behin berrikusiko dela; hala ere, beharrezkoa izanez gero, haren helburuak eta jomugak eguneratuko dira euskal ekintza-planen bidez, eta plan horiei bost urteko aldizkakotasuna esleituko zaie.

Gure ustez, Estrategiarako eta Planetarako finkatutako epeak zabalegiak dira, kontuan hartuta gaiari eta errealitateari berari buruzko ezagutzaren aurrerapenak azkarrak direla, edo Klima-aldaketarekin lotutako arloetan eragina duen legediaren aurrerapenak azkarrak direla. Gainera, epe horiek Xedapen Gehigarrietan adierazitakoarekin lotuta jarri behar ditugu. Hala, Laugarren Xedapen Gehigarrian adierazten denez, lege hau onartu eta bost urteko epean, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak emango ditu legeak eta xedapen orokorrak egiterakoan ikuspegi klimatikoa txertatzeko jarraitu beharreko jarraibideak. Epe bera ezartzen du Bosgarren Xedapen Gehigarriak, lege eta xedapen orokorren prestaketan gidalerro horiek txertatzeko. Epe bera ezartzen da eraikinen iraunkortasuna egiaztatzeko sistema erregelamendu bidez garatzeko eta lurralde- eta hirigintza-plangintza egiteko. 2025era arte luzatu da Klima-aldaketarako irizpide onuragarrienak Eusko Jaurlaritzaren lizitazioetan txertatzen direla ziurtatzeko tresna egokiak sortzeko epea.

Hau da, ia bost urte barru arte ez da egongo lege honen helburuetako asko betetzea ahalbidetuko duen gorputzik Gure ustez, epeen gaiak arintasun handiagoa eskatzen du Klima-aldaketari aurre egiteko premiaren aurrean, eta egokia dirudi horiei buruzko hausnarketa bat planteatzea, epe doituagoak ahalbidetzeko.

Zehaztasun handiagoa erregulazioko zenbait puntutan

Azkenik, aurreproiektuaren alderdi batzuk gehiago zehaztea komeni dela adierazi nahi dugu,

